BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1960

EBAZPENA, 2012ko martxoaren 2koa, Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendariarena, LGAI Technological Center, SA enpresa metrologia tresna ezberdinen egiaztapen metrologikoa egiteko baimendutako erakunde izendatzen duena.

Erref.: 01-OV-1013

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2011ko abenduaren 1ean eta 2012ko urtarrilaren 25ean, Angel Ferre Giménez jaunak, LGAI Technological Center, SA enpresaren (helbidea: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Campusa, Bellaterra, Bartzelona) ordezkari gisa, eskatu zuen LGAI Technological Center, SA enpresa izendatzea funtzionamendu ez-automatikoko pisatze-tresnen, tenperatura neurtzeko tresnen, soinua neurtzeko tresnen, ihes-gasen azterketarako tresnen, opazimetroen, energia elektrikoaren kontagailuen, manometroen, hornigailuen eta banagailuen egiaztapen metrologikorako baimendutako erakunde gisa, barnean hartuta uraz bestelako likidoen neurketarako sistemak, erregai gisa erabiliak izatera bideratzen ez diren substantziekin ibilgailu automobilak hornitzera bideratuak.

Bigarrena.– Erakunde eskatzaileak, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakunde gisa izendatua izateko, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak izendatzeko azaroaren 26ko 1/2007 Zuzentaraua argitaratu duen Industriako Idazkaritza Nagusiaren 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Horretarako, ENACek emandako OC-I/162 Egiaztapen Ziurtagiria aurkeztu da, 2011-01-28ko eranskin Teknikoarekin batera (2. berrikuspena), honako tresna hauek biltzen dituena:

Opazimetroak eta gasen azterketarako tresnak.

Pisatze ez automatikoa 120 tonaraino.

Tenperatura-erregistratzaileak eta termometroak, Laborategi Iraunkorrean -40tik +80 ºCrako 1. eta 2. motako zunda integraturako, eta 0,5., 1. eta 2. motako kanpoko zundarako, eta 1. eta 2. motako In Situ, -40tik +80 ºCra.

Zisterna-kamioien neurketa-sistemak, 25-1.000 l/minutu.

Hornigailuak edo banagailuak, 2-100 l/minutu.

Uraz bestelako likidoak neurtzeko sistemak, hornigailu edo banagailu deituak, erregai gisa erabiliak izatera bideratzen ez diren substantziekin automobilak hornitzera bideratuak, 2-50 l/minutu.

Erabilera publikoko 0tik 12 bar-era bitarteko manometro analogikoak eta digitalak.

Energia elektrikoaren energia aktiboko kontagailu estatikoak, A, B eta C motakoak, 15 kWraino, eta, konbinatuak, energia aktiboko A, B eta C motakoak eta 2. eta 3. motako erreaktiboak, 15 kWraino.

Sonometroak, kalibragailu akustikoak eta dosimetroak.

Hori horrela, eskatutako izendapena behin betiko egitea dagokio.

Espediente honi ebazpena ematerakoan, beharrezkoa izango da honako hauek kontuan hartzea:

OINARRI JURIDIKOAK

1.– EAEn kontrol metrologikoa gauzatzeko bitartekoak ezartzen dituen 38/2001 Dekretuaren 11. artikuluak zehazten duenez, industria-arloko erakunde eskudunak egiaztapen metrologikoak egiteko erakundeak gaitu ahal izango ditu konponketaren edo aldaketaren ondorengo egiaztapenak eta aldizkako egiaztapenak egiteko.

2.– Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuaren (2009-09-24ko EHAA) 14. artikuluan ezarritakoaren arabera, Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritza da Ebazpen hau emateko organo eskuduna.

3.– Neurgailuen kontrol metrologikoa arautzen duen oinarrizko legeria honako hauek osatzen dute: metrologiari buruzko 3/1985 Legeak (ekainaren 28ko 1296/1986 Legegintzako Errege Dekretuak aldatu zuenak), abenduaren 30eko 13/1996 Legeak, abenduaren 30eko 66/1997 Legeak, neurketa-tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuak, eta aipatutako 2007ko azaroaren 29ko Ebazpenak.

4.– Sustapen Ministerioaren 1999ko apirilaren 27ko Agindua, Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena funtzionamendu ez-automatikoko pisatze-tresnei dagokienez.

5.– Agindua, 2004ko apirilaren 23koa, Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, 3.000 kg-tik gorako gehieneko irismena duten funtzionamendu ez-automatikoko pisatze-tresnen egiaztapen-entitateak arautzen dituena.

6.– ITC/3749/2006 Aginduak, azaroaren 22koak, konpresio bidez martxan jartzen diren motorrak (diesel) dituzten automobilen ihes-gasen opakutasuna neurtzeko eta argiarekiko xurgapen-koefizientea zehazteko zerbitzu-fasean dauden tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duenak, entseguak, horien egikaritzea eta onartutako gehieneko akatsak zehazten ditu IV. eranskinean.

7.– ITC/3722/2006 Aginduak, azaroaren 22koak, txinparta bidez martxan jartzen diren motorrak (gasolina) dituzten ibilgailuen ihes-gasen igorpenak neurtzeko zerbitzu-fasean dauden tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duenak, entseguak, horien egikaritzea eta onartutako gehieneko akatsak zehazten ditu II. eranskinean.

8.– 1995eko apirilaren 25eko Ministro Agindua, pneumatikoetarako erabilera publikoko manometroei aldizkako egiaztapenak eta konponketaren eta aldaketaren ondorengo egiaztapenak egiteko faseetako kontrol metrologikoa arautzen duena.

9.– ITC/3700/2006 agindua, azaroaren 22koa, motordun ibilgailuen pneumatikoen presioa neurtzeko predeterminazio-gailuak dituzten edo ez dituzten osagai elektronikoez erabat edo partzialki hornitutako manometroen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

10.– ITC/3720/2006 Aginduak, azaroaren 22koak, uraz bestelako likidoak neurtzeko sistemen (hornigailuen edo banagailuen) gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duenak, entseguak, horien egikaritzea eta onartutako gehieneko akatsak zehazten ditu III. eranskinean.

11.– Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2004ko apirilaren 26ko Agindua, erregaiak eta erregai likidoak hornitzeko uraz bestelako likidoen neurketa-sistemak, eta ibilgailu automobilen pneumatikoetarako erabilera publikoko manometroak egiaztatzeko erakundeak arautzen dituena.

12.– ITC/3750/2006 Agindua, azaroaren 22koa, biskositate txikiko likidoetarako zisterna-kamioietako neurketa-sistemen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

13.– Agindua, 2008ko otsailaren 29koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, biskositate txikiko likidoetarako (<= 20 mPa.S) zisterna-kamioietako neurketa-sistemen titularren, konpontzaileen eta egiaztatze-erakundeen betebeharrak arautzen dituena.

14.– Ebazpena, 2009-07-15ekoa, Industriako Idazkaritza Nagusiarena, azaroaren 22ko ITC/3750/2006 Aginduaren III. eranskina aldatzen duena.

15.– Azaroaren 22ko ITC/3701/2006 Agindua, tenperatura kontrolatuko produktuak garraiatzeko, biltegiratzeko, banatzeko eta kontrolatzeko tenperatura-erregistragailu eta termometroen metrologia-kontrola arautzen duena.

16.– ITC/360/2010 Agindua, otsailaren 12koa, ibilgailu automobilak erregai gisa erabiltzen ez diren substantziez hornitzeko uraz bestelako likidoak neurtzeko sistemen (hornigailuak edo banagailuak) gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

17.– ITC/3747/2006 Agindua, azaroaren 22koa, zuzeneko konexioan edo transformadorerako konexioan, barneko edo kanpoko kokapenean dauden korronte alternoko energia aktiboko kontagailu elektriko estatikoen gaineko (a, b eta c motakoak) Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena, konpondu eta aldatu ondorengo egiaztapen-faserako eta aldizkako egiaztapen-faserako.

18.– ITC/3022/2007 Agindua, urriaren 10ekoa, energia elektrikoko horniduretan 15 Kw-ra bitarteko potentziarekin instalatu behar diren eta ordu-diskriminazioko eta telekudeaketako gailuak dituzten energia aktiboko (a, b eta c motakoak) eta energia erreaktiboko (2. eta 3. motakoak) kontagailu elektriko estatikoen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena, konpondu eta aldatu ondorengo egiaztapen-faserako eta aldizkako egiaztapen-faserako.

19.– 1998ko abenduaren 16ko agindua, soinu entzungarriaren mailak neurtzera bideratutako tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duena.

20.– ITC/2845/2007 Aginduak, irailaren 25ekoak, tresnak jardunean dauden fasean Estatuak soinu entzungarria neurtzeko tresnen gainean eta kalibragailu akustikoen gainean gauzatu beharreko kontrol metrologikoa arautzen du, eta Agindu horren IV. eta V. eranskinetan, entseguak, entseguak gauzatzeko modua eta fase eta tresna bakoitzerako baimendutako gehieneko erroreak zehazten dira.

Aurreko legezko arauak eta ezarri beharreko gainerako xedapen orokorrak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– LGAI Technological Center, SA enpresa izendatzea (helbidea: Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Campusa, Bellaterra, Bartzelona) honako tresna hauen egiaztapen metrologikorako baimendutako erakunde gisa:

Funtzionamendu ez-automatikoko pisatze-tresnak, I. motakoa, m<= 2 kg, n<= 500.000, II. motakoa, m <= 210 kg 210 kg<=m<=2.000 kg, n<= 66.000, III. eta IIII. motakoak, m<= 120 T.

Tenperatura-erregistratzaileak eta termometroak, Laborategi Iraunkorrean -40tik +80 ºCrako 1. eta 2. motako zunda integraturako, eta 0,5., 1. eta 2. motako kanpoko zundarako, eta 1. eta 2. motako In Situ, -40tik +80 ºCra.

Zisterna-kamioien neurketa-sistemak, 25-1.000 l/minutu.

Hornigailuak edo banagailuak, 2-100 l/minutu.

Uraz bestelako likidoak neurtzeko sistemak, erregai gisa erabiliak izatera bideratzen ez diren substantziekin automobilak hornitzera bideratuak, 2-50 l/minutu.

Erabilera publikoko 0tik 12 bar-era bitarteko manometro analogikoak eta digitalak.

Energia elektrikoaren kontagailu estatikoak, energia aktibokoak, A, B eta C motakoak, 15 kWraino, eta, konbinatuak, energia aktiboko A, B eta C motakoak eta 2. eta 3. motako erreaktiboak, 15 kWraino.

Sonometroak, kalibragailu akustikoak eta dosimetroak.

Izendapen horren irismena ENACek emandako egiaztapenean eta OC-I/162 eranskin Teknikoan (2. berrikuspena) bildutako tresnetan oinarritzen da.

2.– Emandako baimenari honako baldintza hauek jartzea:

– Jardun-eremuak Euskal Autonomia Erkidegoko tresnak biltzen ditu.

– Tresnak entseguak gainditzen dituenean, erakundeak betetako egiaztapenaren etiketa jarriko dio. Era berean, kontrol metrologikoko ziurtagiri bat emango da, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak ezartzen duenari jarraiki.

Tresnak entseguak gainditzen ez baditu, zerbitzuz kanpo dauden tresnei dagokien etiketa gorria jarriko dio erakundeak. Hori guztia uztailaren 21eko 889/2006 Errege Dekretuaren I. eranskinari jarraiki, eta egiaztapena gainditu ez duen tresnari dagokion Lurralde Ordezkaritzari lehenbailehen jakinarazita.

– Dagokion egiaztapena egin ondoren, LGAI Technological Center, SA sozietateak tresna zigilatuko du zigiluen bitartez edo, ahal bada eta bortxaezintasuna bermatzen bada, etiketa itsaskor auto-suntsigarrien bitartez. Berunezko zigiluak edo antzekoak ez dira inoiz erabiliko; zigiluak, nolanahi ere, jardueraren girorako egokiak eta iraunkorrak izango dira. Espainiako Metrologia Zentroaren (CEM) eta Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritza honen gidei eta gomendioei jarraitu beharko zaie.

Kasu guztietan, zigiluek honako inskripzio hauek izango dituzte:

a) Zigilu normala:

Aurrealdea



Atzealdea



b) Zigilu enbutitua:



c) Plastikozko zigilua:

Aurrealdea



Atzealdea



«XX» egiaztapena egin den urtearen azken bi digituei dagokie.

3.– LGAI Technological Center, SA enpresak baimendutako entseguei dagozkion tarifen berri urtero emango dio Zuzendaritza honi.

4.– EAEn baimenduta dauden erakundeen erregistroari dagokionez, LGAI Technological Center, SA enpresari 01-OV-1013 zenbakia esleitu zaio.

5.– LGAI Technological Center SA enpresak honako hauetan xedatutakoari jarraituko dio uneoro: neurketa-tresnen gaineko Estatuaren kontrol metrologikoa arautzen duen uztailaren 21eko

889/2006 Errege Dekretua, Izendapen honen oinarri juridikoetan adierazitako aginduak, eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzak ezartzen duen beste edozein xedapen.

6.– Izendapen hori 2013ko abenduaren 31n iraungiko da, eta interesdunak beste izendapen bat eskatu ahal izango du data hori iritsi aurretik, betiere 2007-11-29ko Ebazpenean egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak izendatzeko ezarritako baldintza guztiak betetzen baditu.

7.– Izendatutako erakundearen jardunen gainean ikuskatu, esku hartu eta kontrolatzeko eskumena Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari dagokio. Horretaz gain, baimena lortzeko arrazoi izan ziren baldintzen mantentzea egiaztatzeko ikuskapenak egin ahal izango dituzte.

8.– Aurkeztutako dokumentuetan egiaztatutako inguruabarretan ebazpen honen ondoren gertatutako edozein aldaketa Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, eta hark baimena berretsi edo, hala badagokio, baliogabetu ahal izango du.

9.– Nolanahi ere, kontrol metrologikopeko neurketa-tresnak fabrikatzeko, merkaturatzeko eta konpontzeko jarduerekiko (zerbitzu-prestazioa eta estatuko eta autonomia-erkidegoko araudietan ezarritakoak barne) bateraezintasuna eta independentzia izango da.

10.– Indarrean dagoen legerian aurreikusitakoez gain, honako arrazoi hauek dakarte dagokion baimena baliogabetzea: baimenean ezarritako aginduak ez betetzea, egiaztagiria etetea edo kentzea, eta baimena eman zeneko inguruabarrak asko aldatzea.

11.– Erregelamenduzko eta administrazioko irregulartasunek eragin dezakete honako izendapen hau ez berritzea, baita egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeari ezarritako zehapenek ere.

12.– Urtero, lehen hiruhilekoan zehar, egiaztapen metrologikoak egiteko baimendutako erakundeak Industria Administrazio eta Segurtasuneko Zuzendaritzari memoria bat bidaliko dio egindako jardueren eta gertatutako gorabeheren berri emanez. Era berean, sei hilean behin, lurralde bakoitzean egindako egiaztapenak jakinaraziko zaizkio dagokion Ordezkaritzari.

Horretaz gain, 48 orduko aurrerapenarekin mezu elektroniko edo fax bidez jakinaraziko dira jardun-esparruaren arabera Lurralde Ordezkaritzan egitea dagozkio egiaztapenak.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta haren aurka Gora jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 2a.

Industria Administrazio eta Segurtasuneko zuzendaria,
YOLANDA LÓPEZ FERNÁNDEZ.